

Inurrien antolaketa sozialari buruzko xehetasun gehiago

APIRILAREN 18AN Lausanako Unibertsitateko (Suitza) ikerlari talde batek inurrien antolaketa sozialari buruzko artikulua argitaratu eman zuen *Science* aldizkarian.

Camponotus fellah espezieko 600 inurri bakoitzari barra-kode bakoitzari bakoitzari bidez euren mugimenduak erregistratu zituzten 41 egunetaz. 10.000 milioi datu bildu eta aztertu ondoren, inurrien antolaketa soziala nolakoa zen garbi samar ikusi zuten ikerlariek.

Hiru multzotan banatzen dira inurriak. %40k, gazteenek, erreginak eta kumeak zaintzen dituzte. Beste batzuk (%30), zahartxoagoak, habia garbitzen aritzen dira, eta zaharrenek (%30) janaria lortzen dute. Zainketa lanetan aritzen direnak eta janaria lortzen dutenak bereizitako eremuetan bizi dira; zientzialariek uste dute erregina kanpoko bizkarroiegandik babesteko egiten dutela hori. Garbitzaileak, berriz, habia osoan mugitzen dira. ■



Ikerketarako erabili dituzten inurriak.

ALESSANDRO CRESPI

Erabilpen anitzeko material berria

Nanyang-eko Unibertsitatean, Singapurren, era askotako erabilpenak izan ditzakeen titanio dioxidozko nano-egitura sortu dute; hidrogenoa lortzeko, ura gezatzeko, eguzki-zelulak sortzeko, litiozko baterien iraupena luzatzeko, zauriak estaltzeko... erabil daiteke material berria. Gainera, orain arte funtzio horiek bete izan dituzten materialak baino merkeagoa da.

ttiki.com/49787

(Gaztelaniaz)

Zirkunzioak hiesetik babesten du

AEBetan egindako ikerketa baten arabera, zirkunzioak egina duten gizonek hies gutxiago, herpes gutxiago eta papiloma gutxiago dute. Antza, lehen larrazalaz estaltzen zuten eremura oxigenoa sartzeak bizitzeko oxigenorik behar ez duten bakterioen kopurua gutxitzen du, eta horrek azaldu ditzake ikerketaren emaitzak.

ttiki.com/49788


(Euskaraz)

Ura izan dezaketen bi planeta antzeman dituzte

KEPLER TELESKOPIOA baliatuz, Notre Dame Unibertsitateko (AEB) Justin Crepppek ikerlariak bi planeta detektatu ditu, orain arte aurkitutakoen artean gure Lurraren antz handiena dutenak. 1.200 argi urtera dagoen izar baten inguruan biraka dabilta eta Lurra baino pixka bat handiagoak dira.

Bi planetetako batek 267 egun behar ditu bere izarraren inguruan bira osoa egiteko, eta besteak 122. Haitzez osaturik daudela uste da, eta izarrera bitarteko distantziagatik, posible litzake ur likidua egitea horietan.

Kepler teleskopioa 2009an bidali zuen NASAk espaziora. Ordutik geroztik 100.000 izar baino gehiago behatu ditu, eta horien inguruetan 2.740 planeta hauteman ditu. Aipatutako azken bi horiek dira ura, eta beraz, bizia izateko aukera handienak dauzkatenak. ■



Kepler teleskopioa.



Hegazti gripearen birus bat, kezka iturri

“Hegazti birus” izendapena duten birus mota bat baino gehiago dago. Horietako bat, H7N9, ikerlarien kezka iturri bilakatu da, gizakien artean hedatzeko izan dezakeen erraztasunagatik. Oraingoan dakiguna da oso erraz mutatzeko dela.

ttiki.com/49789

(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16